

# BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 3925

*EBAZPENA, 2024ko uztailaren 24koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, Bizkaiko Etxez Etxeko Laguntzako Sektoreko Hitzarmen Kolektiboa Euskal Autonomia Erkidegoko etxeko enpleguko langileen sektorera hedatzeko administrazio-prozedura hasi dela argitara ematen duena.*

ELA sindikatuaren ordezkaria den Leire Gallego López de Goikoetxea andreak eskaera egin ondoren, Etxez Etxeko Laguntzako Sektoreko Hitzarmen Kolektiboa Euskal Autonomia Erkidegoko etxeko enpleguko langileen sektorera zabaltzeko administrazio-prozedura hasi zen 2024ko uztailaren 1ean, Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza honetan.

Hitzarmen kolektiboen hedapenerako prozedura onesten duen ekainaren 20ko 718/2005 Errege Dekretuko 4.2 artikulua ezartzen du hedapen-prozeduren hasiera «Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian» eta hedapena egingo den lurralde-eremuan gehien saltzen den egunkarietako batean iragarri behar dela, herritarrak jakinaren gainean egon daitezten eta interesdunek esku hartzeko aukera izan dezaten.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 83. artikulua ezartzen du jendaurreko informazioaren izapidearen iragarkian erakusketa-lekua adierazi behar dela, nolahi ere, bitarteko elektronikoen bidez hala eskatzen duten pertsonen eskura egon behar du dagokion egoitza elektronikoa, eta zein epe izango den alegazioak aurkezteko.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuak Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzari ematen dio ebazpen hau egiteko eskumena.

Aurreko guztia kontuan hartuta, hauxe

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– ELA sindikatuaren ordezkaria den Leire Gallego López de Goikoetxea andreak eskaera egin ondoren, Etxez Etxeko Laguntzako Sektoreko Hitzarmen Kolektiboa Euskal Autonomia Erkidegoko etxeko enpleguko langileen sektorera hedatzeko administrazio-prozedura hasi dela argitara ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta hedapena egingo den lurralde-eremuan gehien saltzen den egunkarietako batean argitaratzeko agintzea, herritarrak jakinaren gainean egon daitezten eta interesdunek esku hartzeko aukera izan dezaten.

Hirugarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 83. artikulua betez, eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, aditzera ematen da aipatutako espedienteari buruzko dokumentazioa Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzan dagoela interesdunen eskura (Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz) eta alegazioak egiteko epea ebazpen hau argitaratzen den egunetik hogeitun egunera bukatuko dela.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 24a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,  
ANGEL LAPUENTE MONTORO.